

2º CERTAMEN INTERNACIONAL DE
MICRORRELATOS DE
SAN FERMIN

SAN FERMINETAKO KONTAKIZUN
LABURREN NAZIOARTEKO II. SARIKETA

II INTERNATIONAL COMPETITION OF VERY
SHORT STORIES ON **SAN FERMIN**

*UNA FIESTA INDESCRIPCIÓN
NARRADA EN 200 PALABRAS*

JAI IKARAGARRIA, 200 HITZETAN KONTATUA

AN INDESCRIBABLE FESTIVAL TOLD IN 200 WORDS

ORGANIZAN:




Príncipe de Viana

FIRMA DE GRANDES VINOS

COLABORAN:

mercem
mercem.com

2016
Pamplona
Capital europea de la cultura
Euzkadi hirugarren hiria

SANFERMINETAKO KONTAKIZUN LABURREN II. SARIKETAREN OINARRIAK (I)

0.- “Asociación para el conocimiento y la difusión de los Sanfermines” -blogsanfermin.com- elkarteak eta “Príncipe de Viana” upategiak -aurrerantzean “antolatzaileak”- bultzatu eta antolatu egiten dute Sanferminetako Kontakizun Laburren Nazioarteko II. Sariketa. Ondoko oinarriak ditu sariketak:

1.- Adinez nagusia den edozein nazionalitatetako pertsona fisiko orok parte hartu ahalko du lehiaketan.

2. - Egile bakoitzak kontakizun labur bakarra aurkeztu ahalko du. Sariketako epaimahaikideak ezin izanen dira aurkeztu. Ezin izanen da izengoitirik erabili lehiaketan parte hartzeko. Harremanetarako datuek zuzenak, osoak, irakurtzeko modukoak eta egiazkoak izan beharko dute. Lehiakideek kontakizun laburra haiek berek sortua dela ziurtatu beharko dute, eta horren erantzukizun osoa hartuko dute antolatzaileen aurrean. Beraz, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izanen horri buruz beste edonork egin lezakeen edozein erreklamazioren aurrean. Horren barnean daude ohore, intimitate, irain eta kalumnia, eta irudi-eskubideari buruzko legedia urratzeagatik izaten ahal diren erreklamazioak, baita iraingarri edo lizun izaten ahal diren esamoldeek sortutakoak ere.

3.- Aurkezten diren kontakizun laburrek 200 hitz izan beharko dituzte gehienez. Obraren izenburua ez da sartzen zenbaketa horretan.

4. - Sanferminei buruzkoa izan beharko du gaiak, eta ondoko hiru hizkuntzetako batean idatzirik beharko du: gaztelania, euskara edo ingelesa. Jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute. Halaber, ez dute lehenagoko beste saririk izan behar, ezta beste lehiaketa batean ebazpenaren zain egon behar ere.

5.- Honela aurkeztu beharko dira lanak:

www.principedeviana.com/bodega/certamen webgunera sartu eta hango galdera sortaren ondoko alorrak bete beharko dituzte:

- a. Izen-abizenak
- b. Parte-hartzailea bizi den hiria eta herrialdea.
- c. Harremanetarako telefonoa.
- d. Harremanetarako posta elektronikoa:
- e. Nortasun Agiri Nazionala edo baliokidea.
- f. Nola ezagutu gaituzun: kartelak, prentsa, blogak, gizarte sareak.
- g. Kontakizunaren izenburua.

Parte-hartzaileen datu pertsonalak ez zaizkio beste inori inolaz ere ezagutarazi edo lagako.

Behar bezala datuak sarturik, sistemak www.blogsanfermin.com webgunearen orri batera eramanen ditu automatikoki parte-hartzaileak. Han sartu beharko dute kontakizun laburra, bertako argibideei jarraikiz.

6.- Kontakizunak aurkezteko epea maiatzaren 3an hasiko da, 00:00etan; eta maiatzaren 28an bukatuko da, 24:00etan (Madril-Espainiako ordu-zonaren arabera).

SANFERMINETAKO KONTAKIZUN LABURREN II. SARIKETAREN OINARRIAK (II)

7.- Aurkezten diren kontakizunetatik 20 obra hautatuko dira. 20 kontakizun labur horietatik 10 finalista hautatuko dituzte epaimahaikideek, baita horietatik hiru irabazleak aukeratuko ere, betiere kontakizunaren literatur kalitatea eta egilearen sormenaren argitasuna kontuan harturik.

8.- Epaimahaikideen erabakia apelaezina izanen da, eta kideen gehiengo soila erabilita egingen da. Halaber, eskumena izanen dute gogoeta egitean sortzen ahal diren gorabehera guztiak ebazteko.

9.- Ondoko sariak emanen ditu sariketak:

- Irabazlea: 500 euro eta Príncipe de Viana upategietako ardo sorta, 250 euroko balioa duena.

- Bigarrena: 250 euro eta Príncipe de Viana upategietako ardo sorta, 250 euroko balioa duena.

- Hirugarrena: Príncipe de Viana upategietako ardo sorta, 250 euroko balioa duena.

10.- Epaimahaikideek emanen dute ebazpena, eta EKAINAREN 17AN jendaurrean jakinaraziko dute komunikabideetan, blogsanfermin.com eta principedeviana.com webguneetan, eta, berariaz eta zuzenean, saritutako kontakizun laburren egileei. Ekitaldi berean aurkeztuko da lehiaketaren hiru hizkuntz ofizialetera itzulitako 10 obra finalistak jasotzen dituen liburua.

11.- Saria eman gabe gelditu ahalko da, baldin eta, jasotako kontakizun laburren azterketa xehea eginik, horietariko bakar batek ere kalitate mahikorik ez badu.

12.- Antolatzaileek edozein euskarritan argitaratu eta edozein bideren bitartez transmititu ahalko dituzte aurkeztutako lanak. Horretarako, parte-hartzaileek argitaratze eskubideak doan lagatzen dizkiete antolatzaileei, hau da: obrak erreproduzitzeko, banatzeko, eraldatzeko eta jendaurrean komunikatzeko, baita lanak, osorik edo zati bat, merkaturatzeko beste edozein eskubide ere, edozein euskarritan, mundu osorako eta legez ahal den gehieneko eperako. Antolatzaileek konpromisoa hartzen dute kontakizun laburraren egilea aipatzeko.

Parte-hartzaileek erantzukizun osoa hartzen dute. Beraz, antolatzaileek ez dute inolako erantzukizunik izanen beste inork edozein erreklamazio egiten badu, lehenago egileak hartu duen eta antolatzaileen eskubideei eragiten ahal dien edozein konpromiso eta/edo kargari dagokionez, oinarri hauetan xedatutakoarekin bat.

13.- Lehiaketan parte hartzeagatik, parte-hartzaileek bertan zehazten diren baldintza guztiak onartzen dituzte, eta horiei men egiten diete berariaz.

14.- Literatura edo kultura alorreko profesionalak osatuko dute epaimahaia.